



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### EZ OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2019IPLE0007

**Eguna:** 2019-07-02

**Ordua:** 19:00 – 19:45

**Tokia:** Areto nagusia

#### Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Iasa ..... Astigarragako EH Bildu
- Aintzane Barandiaran Ezponda ..... Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena..... Astigarragako EH Bildu
- Roxali Fernandez Rodriguez ..... Astigarragako EH Bildu
- Esti Neira Martinez ..... Astigarragako EH Bildu
- Aitor Güemes Oyarbide ..... Astigarragako EH Bildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz ..... Astigarragako EH Bildu
- Juan Martín Arregui Sagües..... Astigarragako EAJ-PNV
- Urkiri Salaberria Gracia..... Astigarragako EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro..... Astigarragako EAJ-PNV
- Antton Costa Casco..... Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco..... Astigarragako EAJ-PNV
- Mikel Durán Gonzalo..... Udal-talde Sozialista

#### Bertaratu ez direnak

#### Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

#### Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIAK	Zk / Nº	ORDEN DEL DIA
2019ko ekainaren 15eko akta onartzea.	1	Aprobación del acta de 15 de junio de 2019.
Udal inbentarioaren egiaztapena.	2	Comprobación del inventario municipal.
Udal talde politikoaren eraketa.	3	Constitución de los grupos municipales.
Bozeramaile batzordearen sorrera eta osaketa.	4	Creación y composición de la junta de portavoces.
Udal osoko bilkuren aldizkakotasuna	5	Periodicidad de las sesiones del Pleno
Batzorde informatibo iraunkorren sorrera eta osaketa	6	Creación y composición de las comisiones informativas permanentes
Kontratazio-mahai iraunkorren sorrera eta osaketa	7	Creación y composición de la mesa de contratación permanente.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

Udal osoko bilkuraren eskumena den eta organo kolegiatuetan parte hartuko duten ordezkarien izendapena	8	Nombramiento de representantes en órganos colegiados, que sean competencia del Pleno
Alkateari eskumenak eskuordetzea.	9	Delegación de competencias en el alcalde
Politiko eta aldi baterako langileen dedikazio eta ordainketen erregimena	10	Régimen de dedicación y retribuciones de los políticos y personal eventual
Alkatetzako ebazpenak jakinaraztea: udal talde politikoaren lokalak banaketa, tokiko gobernu batzarra eratzea eta alkatea ordeak izendatzea.	11	Conocimiento de las resoluciones del Alcalde: asignación de locales a los grupos municipales, creación de la comisión de gobierno y nombramiento de tenientes de alcalde.

### Esan-eginak eta erabakiak

#### 1.- 2019ko ekainaren 15eko akta onartzea.

Aho batez onartu da.

#### 1.- Aprobación del acta de 15 de junio de 2019.

Se aprueba por unanimidad.

#### 2.- Udal inbentarioaren egiaztapena.

Alkateak azaldu du korporazioa aldatzen den bakoitzean udal inbentarioa egiaztatu behar dela, eta horretara udal-idazkariak txosten bat egin duela. Jarraian proposamen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

*Bakarra.- - ONARTZEA ordeko udal-idazkariak, 2019ko ekainaren 14an, udal ondasunen inbentarioren egiaztapenaren inguruan egindako txostena.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta proposamena **aho batez onartu da.**

#### 2.- Comprobación del inventario municipal.

El alcalde ha explicado que cuando se renueva la corporación hay que comprobar el inventario, y que para ello la Secretaría municipal ha preparado un informe. A continuación

*Único.- APROBAR el informe de comprobación del inventario de bienes – de fecha 14 de junio de 2019 – elaborado por la secretaria accidental.*

A continuación se ha procedido a votar, y se ha **aprobado** la proposición **por unanimidad.**

#### 3.- Udal talde politikoaren eraketa.

Alkateak azaldu du 3 talde osatu direla: Astigarragako EH BILDU, Astigarragako EAJ-PNV eta Udal-talde Sozialista. Halaber, jakinarazi du talde bakoitzaren bozeramaileak nortzuk izango diren, baita horien ordekoak ere.

Nerea zinegotziak hitza hartu eta adierazi du ez dutela ulertzen EH Bilduko bozeramailea lanaldi erdian egotea, ezta ere zergatik ez den alkatea bere taldeko bozeramailea.

#### 3.- Constitución de los grupos municipales.

El alcalde señala que se han constituido tres grupos: Astigarragako EH BILDU, EAJ-PNV Astigarraga y el Grupo Municipal Socialista. Comunica, asimismo, quiénes serán las personas portavoces de cada grupo y sus correspondientes suplentes.

Toma la palabra la concejala Nerea, para señalar que no entienden cómo la portavoz de EH Bildu puede estar a media jornada, ni por qué el alcalde no asume la portavocía de su grupo.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### 4.- Bozerramaile batzordearen sorrera eta osaketa.

Alkateak proposamen hau aurkeztu du:

*Lehena.- BOZERAMAILE BATZORDEAREN eraketa ONARTZEA.*

*Bigarrena.- Bozerramaileen batzorderako kide hauek izendatzea*

- *Lehendakaria: Xabier Urdangarin Lasa*

- *Bokalak:*

*Esti Neira, eta bere ordezkoa, Andoni Gartzia Arruabarrena.*

*Nerea Zusberro Alberroeta, eta bere ordezkoa Urkiri Salaberria Gracia.*

*Mikel Duran Gonzalo*

*Hirugarrena.- Bozerramileen batzordearen eginkizun orokorra, udal-talde guztien kontsulta behar duten gaiak bideratzea eta, gai orokorrak izan eta udalaren interesa duten gaiak aztertzea, baldin eta gaiok ezin badira udal antolaketaren beste arlo batzuetan bildu.*

Nerea zinegotziak hitza hartu du adierazteko bera abizena gaizki dagoela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta proposamena **aho batez onartu** da.

### 5.- Udal osoko bilkuren aldizkakotasuna

Alkateak proposamen hau aurkeztu du:

*Bakarra.- Osoko Bilkuraren ohiko bilerak egitea hilabeteko azken asteartean, 19:00etan, abuztuan izan ezik, ez dela bilerarik egingo.*

Jarraian alkateak hitza hartu eta adierazi du ordutegi hori proposatu izanaren arrazoia dela herritarren partehartze ahalik eta haundiena izatea nahi dutelako.

Nerea zinegotziarentzat, berriz, ordutegi hori ez da hoberena familia eta lana kontziliatzeko, eta bilera guztietara bertaratzen saiatuko diren arren, aurreratu du ezin dute proposamena babestu eta abstenitu egingo direla.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta proposamena **onartu** da aldeko 7 botoekin (Astigarragako EH Bildu) eta 6 abstentzioekin (Astigarragako EAJ-

### 4.- Creación y composición de la junta de portavoces.

El alcalde ha presentado la siguiente propuesta:

*Primero.- APROBAR la creación de la JUNTA DE PORTAVOCES*

*Segundo.- Designar como miembros de la junta a las siguientes personas:*

*Tercera.- La función genérica de la Junta de Portavoces será la de canalizar los temas que requieran consulta de los distintos grupos municipales, así como el estudio de asuntos de carácter general y de interés para el municipio que no tengan encaje en el resto de la organización municipal.*

Toma la palabra la concejala Nerea, para señalar que su apellido está mal escrito.

A continuación se ha procedido a votar, y se ha **aprobado** la proposición **por unanimidad**.

### 5.- Periodicidad de las sesiones del Pleno

El alcalde ha presentado la siguiente propuesta:

*Único.- Celebrar las sesiones plenarias ordinarias el último martes del mes, a las 19:00 horas, salvo en agosto que no habrá sesión.*

A continuación toma la palabra el alcalde, para señalar que ha propuesto ese horario con el objetivo de lograr la máxima participación ciudadana posible.

En cambio, la concejala Nerea considera que ese no es el mejor horario para conciliar familia y trabajo, y adelanta que, pese a que procurarán asistir a todas las sesiones, no pueden apoyar la propuesta, por lo que se abstendrán.

A continuación se ha procedido a votar, y se ha **aprobado** la proposición con 7 votos a favor (Astigarragako EH Bildu) y 6 abstenciones (EAJ-



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

PNV eta Udal talde Sozialista).

PNVAstigarraga y Grupo Municipal Socialistas).

### 6.- Batzorde informatibo iraunkorren sorrera eta osaketa

Alkateak proposamen hau aurkeztu du:

*Lehena.- Izaera iraunkorreko Batzorde Informatiboak sortzea ONARTZEA, 7/1985 Legearen 20.1.c artikularen eta 2468/1986 Errege Dekretuaren 123tik 127ra eta 134tik 138ra bitarteko artikuluen funtzioak betetzeko.*

*Bigarrena.- Batzorde Informatibo bakoitzak 5 kide izango ditu, 3 EH Bildu alderdikoak, 1 EAJ-PNV alderdikoa eta beste 1 Udal-talde Sozialita taldekoa.*

*Hirugarrena.- Irizpenak bertaratuen gehiengo arruntarekin onartuko dira, ezinezkoa izanik boto haztatua kontuan hartzea.*

*Laugarrena.- Izaera iraunkorreko Batzorde Informatiboak, izen eta osaketa honekin ONARTZEA:*

### 6.- Creación y composición de las comisiones informativas permanentes

El alcalde ha presentado la siguiente propuesta:

*Primero.- APROBAR la creación de Comisiones Informativas Permanentes, que ejercerán las funciones que establecen los artículos 20.1.c de la Ley 7/1985 y 123 a 127 y 134 a 138 del Real Decreto 2568/1986.*

*Segundo.- Cada comisión informativa se compondrá de 5 miembros, 3 de EH Bildu, 1 de EAJ-PNV y 1 del Grupo Municipal Socialista.*

*Tercero.- Los dictámenes se aprobarán por mayoría simple de los miembros presentes, no pudiendo aplicarse el voto ponderado.*

*Cuarto.- APROBAR la denominación y composición de las Comisiones Informativas Permanentes en los siguientes términos:*

IZENA / NOMBRE	LEHENDAKARIA/ PRESIDENTE	KIDEAK/ MIEMBROS
<b>Hirigintza, etxebizitza, ingurugiroa eta mugikortasuna</b> <i>Urbanismo, vivienda, medioambiente y movilidad</i>	Andoni Gartzia	Xabier Urdangarin Ione Olatziregi Nerea Zusberro Mikel Duran
<b>Obrak, zerbitzuak eta uholdeen aurkako batzordea</b> <i>Obras, servicios y contra las inundaciones</i>	Aitor Güemes	Esti Neira Xabier Urdangarin Jon Arregi Mikel Duran
<b>Ogasuna eta ondarea</b> <i>Hacienda y patrimonio</i>	Andoni Gartzia	Xabier Urdangarin Esti Neira Nerea Zusberro Mikel Duran
<b>Hezkuntza eta DBHRen aldeko batzordea</b> <i>Comisión de Educación y a favor de la ESO</i>	Roxali Fernández	Xabier Urdangarin Aintzane Barandiaran Nerea Zusberro Mikel Duran
<b>Kirolak, jarduera fisikoa eta gazteak</b> <i>Deportes, actividad física y juventud</i>	Ione Olatziregi	Aintzane Barandiaran Andoni Gartzia Iñigo Touzani Mikel Duran



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

<b>Kultura, euskera eta jaiak</b> <i>Cultura, Euskara y fiestas</i>	<i>Aintzane Barandiaran</i>	<i>Ione Olatziregi</i> <i>Xabier Urdangarin</i> <i>Urkiri Salaberria</i> <i>Mikel Duran</i>
<b>Gizarte zerbitzuak eta dineko pertsonak</b> <i>Servicios sociales y personas mayores</i>	<i>Esti Neira</i>	<i>Roxali Fernández</i> <i>Aitor Güemes</i> <i>Urkiri Salaberria</i> <i>Mikel Duran</i>
<b>Komertzioa, Turismos eta Tokiko garapena</b> <i>Comercio, turismo y desarrollo local</i>	<i>Xabier Urdangarin</i>	<i>Aitor Güemes</i> <i>Roxali Fernández</i> <i>Antton Kosta</i> <i>Mikel Duran</i>
<b>Berdintasuna eta parte hartzea</b> <i>Igualdad y participación</i>	<i>Aintzane Barandiaran</i>	<i>Xabier Urdangarin</i> <i>Ione Olatziregi</i> <i>Urkiri Salaberria</i> <i>Mikel Duran</i>
<b>Kudeakea eta Pertsonala</b> <i>gestión y Personal</i>	<i>Xabier Urdangarin</i>	<i>Esti Neira</i> <i>Andoni Gartzia</i> <i>Antton Kosta</i> <i>Mikel Duran</i>

*Bosgarrena.- ZEHAZTEA batzorde informatiboak ohiko bilerak hileko bigarren astean egingo dituztela. Hezkuntza eta DBHren aldeko batzordea; kirolak, jarduera fisikoa eta gazteak; kultura, euskara eta jaiak; eta berdintasun batzordeak arratsaldean egingo dira, eta gainerakoak, berriz, goizez.*

Nerea zinegotziak hartu du hitza eta adierazi pozten direla bere taldeak egindako proposamena –berdintasun batzordea eratu beharrean, berdintasun eta partehartze batzordea sortzearena– ontzat hartu izana, baina ez daudela ados batzordeen osaketarekin (EH Bilduko 3 kide, EAJ-PNV eta Udal talde sozialistaren kide bana). Bere hitzetan ez dago orekatua eta ez du irudikatzen udal hauteskundeetako emaitza.

Mikel zinegotziak adierazi du proposatutako osakera logikoa iruditzen zaiola, udal osoko bilkuraren proportzionaltasuna isladatzen duela, eta beste modu batean egiteko 7 kideko bilerak izan beharko luketela eta hori mini-pleno bat litzakela. Bukatzeko adierazi du pentsatzen duela gaia udal-idazkariarekin aztertu dela eta berak alde bozkatuko duela.

Alkateak erantzun du nahi izan dela quorum-a

*Quinto.- DETERMINAR que las Comisiones Informativas celebrarán sesión ordinaria la segunda semana del mes. La comisión de educación y a favor de la ESO; la de deportes, actividad física y juventud; la de cultura, euskara y fiestas; y la de igualdad a las tardes, y el resto a las mañanas.*

Toma la palabra la concejala Nerea, para señalar que se alegran por haberse tenido en cuenta la propuesta realizada por su grupo —creación de una comisión de igualdad y participación, en vez de una comisión de igualdad—, pero que no están de acuerdo con la composición de las comisiones (3 miembros de EH Bildu por un miembro de EAJ-PNV y otro del Grupo Municipal Socialista). En su opinión no muestra equilibrio y no refleja el resultado de las elecciones municipales.

El concejal Mikel señala que la composición propuesta le parece lógica, en tanto que refleja la proporcionalidad del pleno municipal, y que de otra manera deberían celebrarse reuniones de siete miembros, lo que sería un minipleno. Para finalizar, señala que piensa que el tema ha sido analizado junto a la secretaria municipal, y que él votará a favor.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

bermatzea, bai alderdi guztiei partehartzeko aukera ematea. Andoni zinegotziak, berriz, udal gobernu taldeak 3 kide eta oposizioak 2 edukita plenoaren proportzionaltasuna bermantzen dela, baita legeak eskatzen duela alderdi guztiek edukitzea ordezkariak, eta bestela 7 zinegotziko batzordeak egin behar direla, eta hori ez dela eraginkorra. Bukatzeko adierazi du asmoa dela bere taldeko 2 kide bakarrik joatea, baina quorum-a bermatu egin behar dutela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta proposamena **onartu** da aldeko 8 botoekin (Astigarragako EH Bildu eta Udal talde Sozialista) eta kontrako 5 botoekin (Astigarragako EAJ-PNV).

El alcalde responde que han intentado garantizar que haya quórum, ofreciendo a todos los partidos la oportunidad de participar. Por su parte, el concejal Andoni señala que los 3 miembros del grupo de gobierno y los dos de la oposición garantizan la proporcionalidad del pleno, así como que la ley establece que todos los partidos deben tener sus representantes, y que de otra manera deberían organizarse comisiones de 7, algo que no resulta operativo. Para finalizar señala que su intención es asistir únicamente con 2 miembros, pero garantizando que haya quórum en todo momento.

A continuación se ha procedido a votar, y se ha **aprobado** la proposición on 8 votos a favor (Astigarragako EH Bildu y Grupo Municipal Socialistas) y 5 en contra (EAJ-PNV Astigarra),

### 7.- Kontratazio-mahai iraunkorraren sorrera eta osaketa

Alkateak proposamen hau aurkeztu du:

*Lehena.- Udal honetako edozein kontratazio-organoak legealdi honetan izapidetzen dituen espediente kontratazio guztietarako kontratazio mahaia sortzea.*

*Bigarrena.- Astigarragako Udaleko kontratazio mahairako pertsona hauek izendatzea:*

- *Lehendakaria: Xabier Urdangarin Lasa, eta bere ordezkoa, Esti Neira.*

- *Bokalak:*

*Kontxi Urdampilleta Santamaria (udal-idazkaria)  
Amaia Bengoetxea Arrozpiede (udal kontu-hartzailea)*

- *Idazkaria: idazkaritzako administraria.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta proposamena **aho batez onartu** da.

### 7.- Creación y composición de la mesa de contratación permanente.

El alcalde ha presentado la siguiente propuesta:

*Primero.- Crear una mesa de contratación permanente para todos los expedientes de contratación que tramite cualquier órgano de este Ayuntamiento durante la presente legislatura.*

*Segundo.- Designar como miembros de la mesa de contratación del Ayuntamiento de Astigarraga a las siguientes personas:*

A continuación se ha procedido a votar, y se ha **aprobado** la proposición **por unanimidad**.

### 8.- Udal osoko bilkuraren eskumena den eta organo kolegiatuetan parte hartuko duten ordezkarien izendapena

Alkateak proposamen hau aurkeztu du:

*Lehena: Udalak parte hartzen duen erakunde ezberdinetarako ondorengo ordezkariak izendatzea:*

### 8.- Nombramiento de representantes en órganos colegiados, que sean competencia del Pleno

El alcalde ha presentado la siguiente propuesta:

*Primero: Nombrar en las distintas instituciones en las que participa este Ayuntamiento a los siguientes*



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

representantes:

<b>ERAKUNDEA/ INSTITUCIÓN</b>	<b>ORDEZKARI TITULARRA/ REPRESENTANTE TITULAR</b>	<b>BERE ORDEZKOA/ SUPLENTE</b>
ASTIGARRAGA LANTZEN	Xabier Urdangarin (lehendakaria) Andoni Gartzia (idazkaria) Ione Olatziregi Nerea Zusberro Mikel Duran.	
SAGARDUN PARTZUERGOA	Xabier Urdangarin	Andoni Gartzia
AÑARBEEKO MANKOMUNITATEA	Aitor Güemes	Xabier Urdangarin
BEHEMENDI	Aitor Güemes	Xabier Urdangarin
SAN MARKOS MANKOMUNITATEA	Xabier Urdangarin Aitor Güemes	Andoni Gartzia Ione Olatziregi
GARBITANIA	Xabier Urdangarin	Andoni Gartzia
EUDEL	Xabier Urdangarin	Andoni Gartzia
ELKARKIDETZA	Estibaliz Neira	Xabier Urdangarin
ESKOLA KONTSEILUA	Roxali Fernández	Xabier Urdangarin
HAURRESKOLAK PARTZUERGOA	Xabier Urdangarin	Roxali Fernández
EUSKAL FONDOA	Estibaliz Neira	Roxali Fernández
UDALBILTZA	Andoni Gartzia	Ione Olatziregi
BETERRI BURUNTZA MANKOMUNITATEA	Xabier Urdangarin Roxali Fernández	Andoni Gartzia Ione Olatziregi

Bigarrena: Ebazpen honen berri aipatu Segundo: Comunicar esta resolución a los



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

*erakundeei ematea eta, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea.*

Nerea zinegotziak adierazi du bere taldea, Astigarraga Lantzen-en izan ezik, baztertua izan dela, eta beren legealdian, ordea, oposizioko bi kide izendatu zirela erakunde desberdinetarako.

Mikel zinegotziari, berriz, proposamena ez zaio desegokia iruditu, izan ere, udal gobernu taldeak gehiengo osoa du. Hori bai, udal osoko bilkurak Garbitaniatik ateratzeko akordioa hartu zuela eta izapidetu zen galdetu dio udal-idazkariari.

Horrek azaldu du sozietatea uzteko akordioa enpresari jakinarazi zitzaiola, eta ontzat eman zuten arren, udalak zituen partizipazioen zenbatekoa ez zela itzuli, eskaera bideratu zenean enpresak ez zuelako horretarako baliabiderik eta legeak aukera ematen zuelako aurrerago egiteko. Gaineratu du gaia kontuhartzaitzaren esku gelditu zela, baina partizipazioen zenbatekoa itzuli ez denez, Udala oraindik partaide dela.

Alkateak adierazi du sozietatean jarraitzeko asmoa dutela, eta gai hori udal osoko bilkurara ekarriko dutela.

Andoni zinegotziak, berriz, Nerea zinegotziari erantzun dio aurreko legealdian 6na zinegotzi zituztela talde bakoitzak, baina beraiek baztertuak izan zirela, eta Udalbiltzako ordezkariak utzi bazieten izan zela udal taldeak interesa ez zuelako. Gaineratu du tokiko gobernu batzarrean ere, hasieran bi kide zituzten arren, gero bat kendu zitzaiela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta proposamena **onartu** da aldeko 7 botoekin (Astigarragako EH Bildu), abstentzio 1 (Udal talde Sozialista) eta kontrako 5 botoekin (Astigarragako EAJ-PNV).

*órganos correspondientes, y publicarlo en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento.*

La concejal Nerea indica que salvo en Astigarraga Lantzen su grupo ha sido relegado, mientras que en la legislatura bajo el mandato de su grupo se nombró a dos miembros de la oposición para diferentes entidades.

En cambio, al concejal Mikel no le ha parecido mal la propuesta, ya que el grupo de gobierno municipal cuenta con mayoría absoluta. Eso sí, pregunta a la secretaria municipal si se tramitó el acuerdo adoptado por el pleno municipal para la salida de Garbitania.

Esta le señala que el acuerdo para abandonar la sociedad fue comunicado a la empresa, y que, a pesar de aceptarlo, no procedieron a la devolución del importe de las participaciones del ayuntamiento, ya que en el momento de realizarse la solicitud la empresa no disponía de los recursos necesarios, posibilitando la ley que la devolución se lleve a cabo más adelante. Añade que el tema quedó en manos de intervención, pero que, al no haberse devuelto el importe de las participaciones, el Ayuntamiento todavía es socio.

El alcalde indica que su intención es continuar en la sociedad, y que llevarán el tema al pleno municipal.

Por su parte, el concejal Andoni responde a la concejala Nerea que en la anterior legislatura cada grupo contaba con 6 concejales/as, pese a la cual su grupo fue relegado, y que si les cedieron la representación de Udalbiltza fue porque no le interesaba a su grupo municipal. Y a continuación añade que en la junta de gobierno local les quitaron una representante pese a contar inicialmente con dos.

A continuación se ha procedido a votar, y se ha **aprobado** la proposición con 7 votos a favor (*Astigarragako EH Bildu*), 1 abstención (*Grupo Municipal Socialistas*) y 5 en contra (*EAJ-PNV Astigarra*).

### 9.- Alkateari eskumenak eskuordetzea.

Alkateak proposamen hau aurkeztu du:

### 9.- Delegación de competencias en el alcalde

El alcalde ha presentado la siguiente propuesta:





## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

*Lehena.- Udal osoko bilkurarenak diren eskumen hauek alkateari eskuordetzea:*

1.- *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen araututako kontratuen espedienteak irekitzea.*

2.- *Kontratuen aldaketa espedienteak irekitzea eta izapidetzea.*

3.- *Udal ondasunak eskuratzeko, besterentzeko edo erabiltzeko espedienteak irekitzea eta izapidetzea.*

4.- *Udal ondasunen ikerketa espedienteak irekitzea eta izapidetzea.*

5.- *Udal ondasunak berreskuratzeko espedienteak irekitzea, izapidetzea eta ebaztea.*

*Bigarrena.- Akordioa GAOn argitaratzea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta proposamena **aho batez onartu** da.

*Primero.- Delegar al alcalde las siguientes competencias del pleno:*

1.- *La apertura de los expedientes de contratación regulados en la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público.*

2.- *La incoación y tramitación de los expedientes de modificación contractual.*

3.- *La incoación y tramitación de los expedientes de adquisición, enajenación y uso de bienes municipales.*

4.- *La incoación y tramitación de los expedientes de investigación de bienes.*

5.- *La incoación, tramitación y resolución de los expedientes de recuperación de bienes municipales.*

*Segundo.- Publicar el acuerdo en el BOG.*

A continuación se ha procedido a votar, y se ha **aprobado** la proposición **por unanimidad**.

### 10.- Politiko eta aldi baterako langileen dedikazio eta ordainketen erregimena

Alkateak proposamen hau aurkeztu du:

#### 1.- **Denbora osoko lanaldi.**

*Alkateak, 2019ko abuztuaren 1etik aurrera, bere kargua denbora osoko lanaldian egingo du, eta hileko ordainsari gordina 3.845,13 eurokoa izango da (urteko 53.899,06 euroko ordainsari gordina).*

*Ordainketa hau dagozkion zerga betebeharrei lotua egongo da eta Udal honetako gastu aurrekontuaren 1. kapituluaren kargura kontabilizatuko da.*

#### 2.- **Denbora murriztuko lanaldia:**

2.1. Udal-gobernu taldeko zinegotziak: denbora murriztuko lanaldia

*Esti Neira zinegotzia izendatzea, 2019ko irailaren 1etik aurrera, Alkatetzako idazkari lanetarako %50eko lanaldi murriztuan. Hileko ordainsari gordina 1.151,92 eurokoa izango da (urteko*

### 10.- Régimen de dedicación y retribuciones de los políticos y personal eventual

El alcalde ha presentado la siguiente propuesta:

#### 1.- **Régimen de dedicación exclusiva.**

*El alcalde desempeñará, a partir del 1 de agosto de 2019, el cargo con dedicación exclusiva y la retribución será de 3.845,13 euros mensuales brutos (53.899,06 euros de retribución bruta anual).*

*Esta retribución quedará sujeta a las obligaciones tributarias correspondientes y se contabilizarán con cargo al capítulo 1 del presupuesto de gastos de este Ayuntamiento.*

#### 2.- **Régimen de dedicación parcial.**

2.1. Régimen de dedicación parcial de concejales del grupo de gobierno.

*Se nombra a Esti Neira para desempeñar, a partir del 1 de septiembre de 2019, la función de Secretaria del Alcalde con un régimen de dedicación parcial del 50 % de la jornada ordinaria.*



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

16.126,88 euroko ordainsari gordina).

La retribución será de 1.151,92 € mensuales brutos (16.126,88€ de retribución bruta anual).

### 2.2. Oposizioko kide den zinegotzi bat denbora murrizko lanaldian

Nerea Zusberro Alberro – EAJ-PNV taldearen bozeramailea – liberatzea %50eko lanaldi murriztuan. Hileko ordainsari gordina 1.151,92 eurokoa izango da (urteko 16.126,88 euroko ordainsari gordina).

### 2.2. Régimen de dedicación parcial de una persona concejal de la oposición.

Liberar a Nerea Zusberro Alberro – portavoz de EAJ-PNV – con un un régimen de dedicación parcial del 50 % de la jornada ordinaria. La retribución será de 1.151,92 € mensuales brutos (16.126,88€ de retribución bruta anual).

Ordainketa guztiak dagozkion zerga betebeharre lotuak egongo dira eta Udal honetako gastu aurrekontuaren 1. kapituluaren kargura kontabilizatuko dira.

Todas las retribuciones quedarán sujetas a las obligaciones tributarias correspondientes y se contabilizarán con cargo al capítulo 1 del presupuesto de gastos de este Ayuntamiento.

### 2.3. Aldi baterako pertsonala Ez da aurreikusten.

### 2.3. Personal eventual No se prevé.

## **3.- Bertaratu izanagatiko ordainketak:**

Zenbateko hauek proposatzen dira:

- Osoko bilkurara joategatik: 60 €.
- Tokiko batzarrera joategatik: 60 €.
- Batzorde informatiboetara joategatik: 60 euro lehendakariarentzat eta 20€ gainerako zinegotzientzat.

Alkateari eta lanaldia murriztua onartu zaien zinegotziei udal osoko bilkurara, tokiko gobernu batzordera eta batzorde informatzaileetara joategatik ez zaie ordainketarik egingo.

## **3.- Pago de asistencias:**

Se proponen los siguientes importes:

- Asistencia al Pleno: 60€
- Asistencia a la Comisión de Gobierno: 60€.
- Asistencia a las comisiones informativas: 60€ el presidente y 20 euros el resto de concejales.

Al alcalde y a los concejales con dedicación parcial no se les abonarán las asistencias al Pleno, la comisión de gobierno ni las comisiones informativas.

Ordainketa hauek dagozkion PFEZ zergaren atxikipenari lotuak egongo dira eta Udal honetako gastu aurrekontuaren 1. kapituluaren kargura kontabilizatuko dira.

Todas las retribuciones quedarán sujetas a la retención del IRPF y se contabilizarán con cargo al capítulo 1 del presupuesto de gastos de este Ayuntamiento.

## **4.- Talde politikoei ordainsariak**

Zinegotzi bakoitzeko 200 €/hileko eta talde bakoitzeko 300 €/hileko ordainduko dira.

Ordainketa hauek Udal honetako gastu aurrekontuaren 4. kapituluaren kargura kontabilizatuko dira.

## **4.- Pago a grupos políticos**

Se abonará por concejal 200 €/mes y por grupo 300 €/mes.

Estas retribuciones se contabilizarán con cargo al capítulo 4 del presupuesto de gastos de este Ayuntamiento.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.eus

Nerea zinegotziak adierazi du alkatearen soldata aurrekoarekin konparatuz %76,55a handiagoa dela, eta gainera ez dela bozeramailea, ez batzorde garrantzitsuenetako lehendakaria. Halaber, galdetu du alkatearen idazkariak zer ordutegi izango duen, eta adierazi du ez dela normala iraila arte ez hastea. Bukatzeko komentatu du legealdiko lehendabiziko bi asteetan alkatetza itxita egon dela jendaurreko ordutegian.

Mikel zinegotziarentzat, berriz, ez zaio gaizki iruditzen alkatearen soldata, ez %100ean liberatua egotea. Adierazi du bera dela udaleko arduraduna eta soldata hori erantzukizunarekin bat datorrela, baita legea errespetatzen duela ere.

Alkateak hartu du hitza Nerea zinegotziak esandakoari erantzuteko, eta azaldu du tokiko administrazio publikoko goi-mailako eskalako karrerako funtzionarioa dela eta bere ordainsaria lanpostu horretan zuena dela. Gainera, adierazi du aurkeztu duten proposamenarekin zinegotzien ordainsarien kostua jeitsi egingo dela, lanaldi kopuruak murriztu egin direlako (3,2tik 2ra).

Legealdiko bi asteetan alkatetza itxita egon izanaren inguruan, alkateak erantzun dio hori gezurra dela, izan ere, astean hirutan (astelehen, asteazken eta ostiraletan) 8:00etik 16:00 edo 17:00era udalean egon baita, eta dagoneko herritarrekin bilera egin dituela; eta hori fogratu dezakeen arren, ez dela hasiko udal ziurtagiriak eskatzen, edo agenda erakusten. Bukatzeko adierazi du legealdia gezurretan hastea modu txarra dela eta espero duela legealdia ez oinarritzea gezurretan.

Zinegotziak erantzun dio ez dutela soldata kritikatu, horren justifikazioa eskatu dutela, baita EH Bildu ez dela egokiena oposizioa nola egin esateko. Eta alkateari galdetu dio alkatetzako goizeko ordutegia zein izango den. Horrek 8:00etatik aurrera egongo direla esan dio.

La concejala Nerea señala que el sueldo del alcalde es un 76,55 % mayor que el de la anterior alcaldesa, y que además, en este caso ni es portavoz ni presidente de las comisiones más importantes. Pregunta asimismo cuál será el horario de la secretaria del alcalde, añadiendo que no le parece normal que no comience hasta septiembre. Para finalizar comenta que las dos primeras semanas de la legislatura alcaldía ha permanecido cerrada en el horario de atención al público.

En cambio, al concejal Mikel no le parece mal el sueldo del alcalde, ni que esté liberado al 100 %. Señala que él es el responsable del ayuntamiento, y que ese sueldo se corresponde con su responsabilidad, cumpliendo además con la legislación en vigor.

El alcalde toma la palabra para responder a la concejala Nerea, explicando que es funcionario de carrera de la escala superior de la administración pública, y que su retribución es la misma que la que tenía en ese puesto. Además señala que gracias a la propuesta que han presentado el coste por las retribuciones de las personas liberadas se verá reducido, al rebajarse el número de jornadas de 3,2 a 2.

En cuanto al tema de que la alcaldía ha permanecido cerrada durante dos semanas de la legislatura, el alcalde le responde que eso es mentira, ya que tres veces por semana (lunes, miércoles y viernes) ha estado en el ayuntamiento de 8:00 a 16:00 e incluso hasta las 17:00, y que incluso se ha reunido con vecinos, añadiendo que aunque podría demostrarlo, no va a empezar a solicitar certificados municipales o de mostrar la agenda. Para finalizar señala que no le parece que empezar la legislatura mintiendo sea una buena idea, y que espera que no fundamenten la legislatura en mentiras.

La concejala le señala que no han criticado el sueldo, sino que han solicitado su justificación, señalando a continuación que EH Bildu no es el más indicado para decirles cómo hay que hacer oposición. Y a continuación pregunta al alcalde cuál será el horario de la alcaldía por la mañana. A lo que éste le contesta que estarán a partir de las 08:00.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta proposamena **onartu** da aldeko 8 botoekin (*Astigarragako EH Bildu eta Udal talde Sozialista*) eta kontrako 5 botoekin (*Astigarragako EAJ-PNV*).

A continuación se ha procedido a votar, y se ha **aprobado** la proposición con 8 votos a favor (*Astigarragako EH Bildu y Grupo Municipal Socialistas*) y 5 en contra (*EAJ-PNV Astigarraga*),

### 11.- Alkatetzako ebazpenak jakinaraztea: udal talde politikoaren lokalen banaketa, tokiko gobernu batzarra eratzea eta alkatea ordeak izendatzea.

Alkateak udal berria eratu denetik ebatzitako antolamentu-dekretu hauen berri eman du:

- 1.- 735/2019 dekretua, ekainaren 17koa, udal taldeen lokal banaketari buruzkoa.
- 2.- 774/2016, ekainaren 26koa, tokiko gobernu batzarra eratzea eta alkatearen funtziok delegatzeari buruzkoa.
- 3.- 775/2016, ekainaren 26koa, Alkateordeak izendatzeari buruzkoa.

### 11.- Conocimiento de las resoluciones del Alcalde: asignación de locales a los grupos municipales, creación de la comisión de gobierno y nombramiento de tenientes de alcalde.

El alcalde ha informado de la resolución de los siguientes decretos de ordenación desde la constitución del nuevo ayuntamiento:

- 1.- decreto 735/2019, de 17 de junio, sobre la distribución de locales de los grupos municipales.
- 2.- - Decreto 774/2016, de 26 de junio, sobre constitución de la junta de gobierno local y delegación de las funciones del alcalde.
- 3.- Decreto 775/2016, de 26 de junio, sobre nombramientos de tenientes de alcalde,

### 12.- Informazio, galdera eta eskariak.

Nerea zinegotziak adierazi du hileko azken asteartea 30 dela eta galdetu du plenoa egun horretan egingo den.

Alkateak erantzun dio asmoa dela 23an egitea, baita tokiko gobernu batzarra ere, bileren ondoren idazkaritzatik akordio guztiak bideratu behar direlako, eta horretarako denbora behar delako.

Bestalde, adierazi du presazko gai batzuk daudela erabakitzeke eta uztailean hiru batzorde informatzaile egiteko asmoa dutela: Hirigintza, etxebizitza, ingurugiroa eta mugikortasuna, Ogasuna eta ondarea, eta Kultura, euskera eta jaiak

### 12.- Información, ruegos y preguntas

La concejal Nerea señala que el último martes de mes es el día 30, y pregunta si el pleno se celebrará ese día.

El alcalde le responde que en principio piensan celebrarlo el 23, así como la junta de gobierno local, debido a que todos los acuerdos adoptados en las reuniones deben ponerse en marcha desde secretaría, para lo que se necesita tiempo.

Por otra parte señala que hay temas urgentes para resolver y que en julio piensan celebrar tres comisiones informativas: Urbanismo, vivienda, medio ambiente y movilidad; Hacienda y patrimonio; y Cultura, euskera y fiestas.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin nik, Idazka-



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

riak, honako agiria egin dut

Astigarragan, 2019ko uztailaren 2an.

Kontxi Urdampilleta Santamaria  
Ordezko udal-idazkaria